BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4049

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketan kontratatzeko laguntzen deialdia argitaratzen da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2012ko uztailaren 6ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketan kontratatzeko laguntzen deialdia onartu du, eta, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartutako Lanbideren Estatutuen 102. artikuluaren p) atalean ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo honetako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Azaldutakoa dela-eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2012ko uztailaren 6ko bilkuran hartutako Erabaki bidez onartutako eta Ebazpen honetan eranskin gisa jasotako deialdia –gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketan kontratatzeko laguntzei buruzkoa– argitaratzea.

Bigarrena.– Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dela organo horretan bertan eta hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 29a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

ERANSKINA

GAZTEAK EUSKAL ENPRESEN KANPOKO LANTOKIETAN PRAKTIKETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Gaur egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, langabezia gora egiten ari da Euskadiko biztanleria aktibo gazteenean, lanbide-kualifikazioaren maila edozein izanik ere. Testuinguru horretan, prestakuntza akademiko edo profesional egiaztatua izanik ere lan-esperientziarik ez duten gazteek lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzte.

Era berean, enpresen gizarte-erantzukizunak gero eta garrantzi handiagoa du enpresen plan estrategikoen barruan, lehiakortasuna indartzeko tresna gisa ez ezik, enpresen gobernu korporatibo on baterako estimulu gisa ere bai. Nolanahi ere, iraunkortasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena bultzatzeko tresna bihurtu da.

Hori dela-eta, premiazkoa da gazte tituludunen enplegu-aukerak areagotzeko eta lan-merkatuan sartzen, okupazioa lortzen eta ingurune erreal batean lan-praktika eskuratzen laguntzeko neurriak hartzea. Eta, hori guztia, kontuan hartuta botere publikoen eta lan-merkatuan esku hartzen duten agenteen –eta, bereziki, enpresen– ardura dela gazte horien enplegagarritasuna hobetzeko jardunak diseinatzea eta horiek bultzatzen laguntzea.

Horren ondorioz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak konpromisoa hartu du Europako Enplegu Estrategiarekin eta nazioartekotzearekin, 2011-2014ko Euskadiko Enplegu Estrategiaren esparruan, eta komenigarria dela ikusi du titulazioa edo kualifikazioa duten, langabezian dauden eta aldez aurreko lan-esperientziarik ez duten gazteak kontratatzeko laguntza-programa bat diseinatzea, deialdi honen bitartez. Era horretan, kanpoko lantokietan laneratzen laguntzeko praktikaldiko kontratuen bidez, talentuko gazteen garapena sustatuko da. Programak azken helburu hauxe du: euskal gizartean gaur egungo egoera ekonomikoak gogor zigortu duen kolektibo baten lan-aurreikuspenak bultzatu eta hobetzea, eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta lan-merkatuaren kalitatea hobetzen laguntzea.

Hori guztia dela-eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honen Administrazio Kontseiluak, 2012ko uztailaren 6ko bilkuran, gazteak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketan kontratatzeko laguntzen deialdia onartu zuen, honako baldintza hauetan:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea langabezian dauden eta aldez aurreko lan-esperientziarik ez duten gazte tituludun edo kualifikatuak EAEko enpresen kanpoko lantokietan edo enpresa partaidetuetan praktiketan kontratatzeko laguntzen oinarriak ezartzea, eta laguntza horiek arautzea da, etorkizunean laneratzen laguntzeko.

2. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Deialdi honen xedea betetzeko baliabide ekonomikoak 8.500.000 euro dira. Horietatik, 2.975.000 euro 2012ko aurrekontu arruntekoak dira, 2.550.000 euro 2013rako konpromiso-aurrekontukoak, eta 2.975.000 euro 2014rako konpromiso-aurrekontukoak (guztiak Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontukoak).

2.– Eman beharreko laguntzen guztizko zenbatekoak ezin izango du gainditu aipatutako zenbatekoa, ezta, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontuaren aldaketak onartzen badira, haren igoeraren ondoriozko zenbatekoa ere; nolanahi ere, egoera hori behar bezala iragarriko da.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jardunak.

1.– Deialdi honen arabera, diru-laguntza jasoko dute EAEko enpresen Espainiatik kanpoko lantokietan lanpostuak betetzeko kontratuaren hasiera egunean 34 urtetik behera duten gazteei egiten zaizkien praktika-kontratuek, baldin eta, gutxienez, 12 hilabeteko iraupena badute. Praktikaldiko kontratuaren iraupena, guztira, edozein dela ere, deialdi honen bidez diruz lagunduko den kontratu-epea ez da 12 hilabete baino gehiago izango, eta 2013ko azaroaren 30ean amaituko da.

2.– Diruz lagundutako praktikaldiko kontratuek, nolanahi ere, gutxienez bederatzi hilabeteko egonaldia bermatuko dute euskal enpresak kanpoan edo enpresa partaidetuetan duen instalazioan edo zentroan.

3.– Deialdi honen babesean diruz lagun daitezkeen praktikaldiko kontratuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Kontratatutako pertsonek Espainiatik kanpoko lantokietan eman beharko dituzte beren zerbitzuak.

b) Kontratazioak kontratatutako pertsonaren prestakuntza akademiko eta profesionalarekin bat datozen lanpostuei lotuta egongo dira.

c) Kontratuak lanaldi osokoak izango dira.

d) Kontratuaren gutxieneko iraupena 12 hilabete izango da.

e) Nolanahi ere, praktikaldiko kontratuak bat etorri beharko du Langileen Estatutuaren 11.1 artikuluan eta hori garatzen duen martxoaren 27ko 488/1998 Errege Dekretuan xedatutakoarekin.

f) Kontratuan, enpresak edo erakunde onuradunak gazteari atzerrian emandako lehen urtean ostatu- eta mantenu-dieta gisa hileko 200 euro ordaintzeko duen betebeharra jasoaraziko da (hitzarmen kolektibo edo enpresa-hitzarmen aplikagarrian xedatutakoari jarraiki kontzeptu horiengatik dagokion zenbatekoaz gain).

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Kanpoan lantokiak edo enpresa partaidetuak dituzten eta honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresa pribatuak edo publiko-pribatuak izan daitezke deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen onuradun:

1.– Helbide soziala eta fiskala EAEn izatea, edo EAEn kokatutako lantokiak izatea.

2.– Administrazio publiko baten edo hainbaten % 50etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza ez izatea.

3.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean edukitzea.

4.– Zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez egotea, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

5.– Enpresa kontratugileek kontratazio berria baino urte bat lehenago eta diruz lagundutako kontratazioak dirauen aldian deialdi honen babespeko diru-laguntzaren eta kontratuaren xede den lanpostuan enplegurik suntsitu ez dela egiaztatzea.

6.– Enpresako langileen legezko ordezkariari praktikaldiko kontratu bidez kontratatu beharreko pertsonaren berri ematea, beteko duen lanpostua eta kontratazioaldia adierazita.

Diru-laguntza hauek ez zaizkie eman eta, hala badagokio ordainduko enpresa onuradunei, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzen ari den edozein itzultze- edo zigor-prozedura amaitzen ez den arte.

5. artikulua.– Deialdi honen pean praktiketan kontratatutako pertsona gazteen baldintzak.

Deialdi hau, 34 urteko edo gutxiagoko gazteak kontratatzera zuzenduta dago, beti ere, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea.

c) Honako titulazio hauetakoren bat izatea:

– Unibertsitateko lizentziatua, ingeniaria, arkitektoa.

– Unibertsitateko diplomatua, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa.

– Lanbide Heziketa arautuko eta berariazko lanbide-heziketako goi-mailako teknikaria; teknikari laguntzailearen (LH1) eta teknikari espezialistaren (LH2) tituluak horien baliokideak izango dira.

– Ofizialki aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.

– Profesionaltasun-ziurtagiria.

d) Ikasketak amaitu zituztenetik (edo, atzerrian lortutako tituluen kasuan, ikasketak Espainian baliozkotu zitzaizkienetik) bost urte baino gehiago igaro ez izatea, edota zazpi urte, bestela, desgaitasunen bat duen gaztea kontratatu nahi bada.

e) Lana jomuga-herrialdeko lantokian behar bezala egiteko beharrezkoak diren hizkuntza-gaitasunak izatea; enpresak zehaztuko du zer hizkuntza-gaitasun behar diren, eta maila-proba bidez egiaztatuko dira.

f) Bete beharrekoaren antzeko lanpostuetan 6 hilabetetik gorako lan-esperientziarik ez izatea.

g) Aurretik bi urte baino gehiago praktikaldiko kontratuan ez egotea, ez enpresa horretan ez beste batean, kontratatuko den titulazio berberarekin.

6. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa egindako praktika-kontratuen kopuruaren araberakoa izango da. Praktikaldiko kontratu bakoitzeko diru-laguntzaren zenbatekoa honako zenbateko hauek batuta finkatuko da:

a) Kontrataziorako laguntzak: diruz lagundu ahalko dira praktikaldiko kontratuak, indarrean dagoen lehenengo 12 hilabeteetan, enpresa onuradunari sortzen dizkion soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak (2013ko azaroaren 30era bitarte).

Programa honen babesean praktikaldiko lan-kontratu bakoitzeko diruz lagun daitekeen urteko gehieneko zenbatekoa deialdi honen I. eranskinean kontuan hartutako herrialdeetarako eta prestakuntza-mailetarako ezarritakoa izango da.

Nolanahi ere, diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu egindako kontratazio bakoitzaren egiazko kostua, kontratatutako pertsonen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak kontuan hartuta. Gainditzen badu, egiazko kostu horretaraino murriztuko da diru-laguntza.

b) Ostatu- eta mantenu-dietak. Era berean, diru-laguntzaren xede den aldian kontratatutako gazteen mantenu- eta bidaia-dietek erakunde onuradunari sortutako kostuari aurre egiteko ere eman ahal izango da diru-laguntza, praktikaldiko kontratu indarrean dagoen lehen 12 hilabeteetan (hileko 200 euro). Salbuetsi egingo dira gaztea atzerrian bizi ez den aldiak.

c) Programa zabaltzeko eta jarraipena egiteko zereginak: programaren zabalkunde, babes, jarraipen eta kudeaketari lotutako zereginak egiteko kanpoko enpresak edo erakundeak (merkataritza-ganberak, enpresa-erakundeak, konfederazioak, klusterrak eta eremu horretan adituak diren irabazi-asmorik gabeko erakundeak) kontratatzeak enpresa edo erakunde onuradunari sortzen dizkion gastuak ere diruz lagundu ahal izango dira. Azalpen horrengatik gehienez ere 600 euro emango dira kontratatutako gazte bakoitzeko.

7. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Deialdi honetan aipatzen diren diru-laguntzen eskaerak deialdiaren 2. eranskinean agertzen den eredu ofizialaren arabera aurkeztuko dira. http://www.lanbide.net webgunean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lurraldeko Enplegu Bulegoetan egongo da eskuragarri eredu ofizial hori.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

2.– Eskaera-orriarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Eskaera sinatzen duen pertsonak pertsona juridiko eskatzailearen izenean jarduteko duen ordezkaritza-ahalmenak egiaztatuko dituen dokumentazioa, indarrean dagoen legeriari jarraiki.

b) Erakundearen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia eta pertsona juridiko eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

c) Hirugarren interesdunaren datuen altari buruzko fitxa, legezko ordezkariak sinatua eta dagokion banku-erakundeak sinatua eta zigilatua.

d) Erakunde eskatzailearen behar bezala legeztatutako estatutuen fotokopia.

e) Erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.

f) Erakunde eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratua.

3.– Eskaerak, gainera, deskribapen-txosten bat eduki behar du, eta datu hauek jaso behar dira bertan:

a) Diru-laguntza jaso nahi duen enpresaren edo erakundearen deskribapen-memoria. Gutxienez, hauek zehaztuko dira bertan:

– Enpresaren jarduera, sektorea, plantilla eta kanpoan dituen bulegoak edo enpresak.

– Zer merkatutara zuzenduta dagoen.

– Hazkunde-aurreikuspenak.

– Nazioartekotze-plana.

b) Kontratazio-plana; hauek zehaztuko dira, gutxienez:

– Kanpoan egin beharreko praktikaldiko kontratuen bidez beteko diren lanpostuen aurreikuspena, betiere, arloa, funtzioak eta egin beharreko zereginak zehaztuta.

– Beharrezkoa den titulazioa eta profila, lanpostua betetzeko eskatutako hizkuntza-gaitasunak zehaztuta.

– Kontratuek zenbat irautea aurreikusi den.

– Jomugako herrialdea eta enpresa/bulegoa.

– Ordainsaria.

– Programaren zabalkundeari eta jarraipenari lotutako zereginak, egin beharreko jarduerak eta horiek egiteko kontratatuko den erakundea.

c) Eskatutako diru-laguntza, kontzeptuen arabera zehaztuta: kontratatutako pertsonen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak, dietak eta programaren zabalkundeari eta jarraipenari lotutako jarduerak egiteko kanpoko erakunde edo enpresa baten kontratazioak sortutako gastuak.

4.– Eskaera osorik betetzen ez bada edo 2. eta 3. ataletan adierazitako aginduzko dokumentazioa falta bada, erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzen dezan, edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Halaber, hala egin ezean bere eskaerari uko egiten diola ulertuko dela adieraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

5.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua.– Ebazpena emateko organo eskuduna, diru-laguntza emateko prozedura, ebazpena, epeak, berraztertzeko errekurtsoa eta publikotasuna.

1.– Ebazpen honen bidez emango diren diru-laguntzak lehiaketa bitartez esleituko dira.

2.– Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritza izango da, eta ebazteko organo eskuduna, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.

3.– Hurrengo artikuluan aurreikusitako balioespen-irizpideei jarraiki, eskaerak kide anitzeko organo batek ebaluatuko ditu. Hauek osatuko dute organo hori:

– Presidentea: Enpleguaren Sustapen Arloko arduraduna edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Bokalak: Enpleguaren Sustapen Arloko arduradunak izendatutako lau teknikari; horietako batek idazkari-lanetan jardungo du.

4.– Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilabete izango da gehienez, deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta esanbidezko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

5.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta emakida-ebazpenen jakinarazpen indibidualizatua eta esanbidezkoa ere egin daitekeela kontuan hartuta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko

zuzendari nagusiaren ebazpenak aginduta, deialdi honen bidez emandako laguntzen onuradunen enpresen eta erakundeen zerrenda argitaratuko da EHAAn.

6.– Emakida-ebazpenean, enpresa edo erakunde bakoitzari esleitutako laguntza-programa eta diru-laguntzen zenbatekoa, ordaintzeko epeak eta justifikazioa jasoko dira.

7.– Enpresa edo erakunde interesdunak 10 eguneko epea izango du emandako diru-laguntza onartzen duela adierazteko, zuzendari nagusiak ebazpena jakinarazten duenetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori amaitzean, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, eta artxibatu egingo da.

8.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta ebazpen horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, hilabeteko epean jakinarazpenaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

9. artikulua.– Eskaerak balioesteko eta diru-laguntza esleitzeko irizpideak.

1.– Deialdi honetan aurkezten diren eskaeren lehentasun-ordena ezartzeko, irizpide hauek kontuan hartuta balioetsiko dira eskaerak:

a) Aurkeztutako proiektuaren ahalmen teknikoa (30 puntu). Honako hauek balioetsiko dira:

– Erakunde onuraduna jarduera berritzaile, teknologiko edo merkatuan eskaria duen batean aritzea (15 puntu).

– Erakunde onuradunak kanpoko merkatuan duen zabaltasuna eta hazteko aukera (15 puntu).

b) Langile gazteen kontratazioaldia diru-laguntzaren xede den aldia baino handiagoa izatea (40 puntu). Diruz lagundutako alditik gorako hilabete bakoitza 3,5 punturekin balioetsiko da.

c) Soldata-ordainsariak diru-laguntzaren xede den zenbatekoa baino handiagoa izatea (20 puntu). 5 puntu emango zaizkio soldata-ordainsaria diru-laguntza baino % 5 gehiago den tarte bakoitzari.

d) Profesionaltasun-ziurtagiria duten pertsonak kontratatzea (10 puntu). Profesionaltasun-ziurtagiria duten pertsonei egindako praktikaldiko kontratu bakoitza 2 punturekin balioetsiko da.

10. artikulua.– Programan parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozedura.

Praktiketan parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozeduran, arau hauek hartuko dira kontuan:

1.– Diru-laguntza onartuz gero, enplegu-eskaintza formalizatu beharko da.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak izangaien aurrehautaketa bat egingo du inskribatu diren eta proposamenean aurreikusitako berariazko baldintzak eta irizpideak betetzen dituzten eskatzaileen artean.

3.– Diru-laguntza onartu eta 10 egun balioduneko gehieneko epean, egindako aurrehautaketaren emaitza aurkeztuko dio enpresari Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, eta enpresak eskatzen duen lanpostu bakoitzeko hiru hautagairen zerrenda bidaliko dio.

Hamar eguneko epean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak programan parte hartzeko pertsonarik proposatzen ez badu, enpresa edo erakunde onuradunak beste langabe batzuk

hautatu ahal izango ditu, eta parte-hartzaileen identifikazioa eta aurreikusitako kontratazio-data jakinarazi beharko dio adierazitako erakunde autonomoari.

4.– Aurrehautaketa egin ondoren, enpresa onuradunak langileak hautatuko ditu; horretarako, lanpostuarekin bat datozen egoki iritzitako probak egin ditzake.

11. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

1.– Kontratatutako pertsonen soldata-kostuei eta Gizarte Segurantzakoei, eta ostatu- eta mantenu-dietei aurre egiteko diru-laguntza honela ordainduko da:

– Lehen ordainketa, % 35ekoa, enpresaren edo erakundearen kontratazio-planean aurreikusitako kontratuak formalizatu eta Gizarte Segurantzako alta-parteak eta lan-kontratuen kopia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari aurkeztu ondoren. Lehen ordainketa hori 180.303,64 euro baino handiagoa bada, titularrak banku-abala aurkeztu beharko du.

– Bigarren ordainketa, % 30ekoa, erakunde onuradunak diruz lagundutako praktikaldiko kontratuak 2013. urtean zehar indarrean jarraitzen duela jasoko duen ziurtagiri propio bat aurkeztu ondoren.

– Hirugarren ordainketa, % 35ekoa, diruz lagundutako aldia amaitu eta diru-laguntzaren xede ziren jardunak justifikatu ondoren. Ordainketa hau 2014 urtean egingo da nahitaez.

2.– Deialdi honen 6.c artikuluan aurreikusitako diru-laguntza ordainketa bakarrean emango da, kontratua, egindako jarduerak azalduko dituen memoria eta horiek egiaztatuko dituzten fakturak aurkeztu ondoren.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta epea.

Enpresa onuradunak «Diru-laguntzaren justifikazioa» aurkeztuko du 2014ko urtarrilaren 31 baino lehen, honako dokumentazio honekin:

a) Praktikaldiko kontratu bidez kontratatutako gazteen zerrenda, kontratuaren iraupena eta kostuak.

b) Diru-laguntzaren xede diren langileek behar bezala sinatutako nominak, ostatu- eta mantenu-dieta gisa ordaindutako zenbatekoa banakatuta dutela.

c) Dagokion aldiko Gizarte Segurantzaren kotizazio-dokumentuak, ordainketa-egiaztagiriak barne.

d) Kontratatutako gazteei ordaindutako ostatu- eta mantenu-dieten egiaztagiriak.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan orokorrean ezartzen direnak izango dira erakunde onuradunen betebeharrak, eta bereziki honako hauek:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntza emateko edo baliatzeko ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela justifikatzea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren egiaztapen-jardunak onartzea.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari xede bera duten eta beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek ematen dituzten diru-laguntzak edo laguntzak lortu izana jakinaraztea.

d) Diru-laguntza emateko kontuan izandako zirkunstantzia objektibo zein subjektiboetan aldaketarik izanez gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmen eragiten dion gorabehera ororen berri ematea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan jardutea jarduera horiek egiaztatu, jarraitu eta kontrolatzeko prozeduretan.

f) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zigor-prozedura jakinaraztea.

2.– Halaber, diru-laguntzaren enpresa edo erakunde onuradunaren berariazko betebeharrak dira honako hauek:

– Programan parte hartzen duen gaztearentzat tutore bat jartzea, kontratua amaitzean eskuratutako gaitasunak balioetsi daitezen eta gaitasun horiek enplegu-politika aktiboen zerbitzurako tresnak izan daitezen, enplegagarritasuna hobetze aldera.

– Kontratua amaitzean, enpresak ziurtagiri bat egin behar dio langileari, eta hauek jaso behar dira bertan:

a) Praktiken iraupena

b) Betetako lanpostuak eta bakoitzean egindako zeregin nagusiak.

14. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen- eta kontrol-ekintzak egin ditzake.

15. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, emandako diru-laguntza aldatu egin daiteke, betiere diru-laguntzen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako gutxieneko baldintzei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz emandako diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, dagokion itzultze-prozedurari emango zaio hasiera.

16. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko konkurrentzia.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek izaera eta helburu berarekin emandako beste edozein diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrerarekin.

17. artikulua.– Ez-betetzea eta emandako diru-laguntzak itzultzea.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen erakunde onuradunak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluko kasuetako batean badaude edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, ebazpen baten bidez, diru-laguntza ordaindu zenetik jasotako zenbateko eta legezko interes guztiak edo zati bat itzultzeko betebeharra deklaratuko du, bidezkoak diren gainerako ekintzak eragotzi gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu

Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hasiko du itzultze-prozedura, eta laguntzaren erakunde onuradunari jakinaraziko zaio. Ez-betetzea eragin duten gertakariak jakinaraziko zaizkio, eta errekerimendua egingo zaio hamabost eguneko epean egoki iritzitako alegazioak egiteko eta justifikazio-dokumentuak aurkezteko. Prozedura hasteak, hala badagokio, eten egingo ditu oraindik egin ez diren ordainketak.

3.– Alegazioak aurkezteko epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez bada, edo atzera bota badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko gehieneko epea 12 hilabete izango da.

4.– Ebazpenak ez-betetzea izan dela adierazten badu eta diru-laguntza osoa edo zati bat jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratzen badu, interesdunak dagokion zenbatekoak itzuli beharko dizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari. Zenbateko horiek itzultzeko, bi hilabeteko epea izango da gehienez, ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko aldiko epetzat hartuko da.

5.– Borondatezko aldian itzultzen ez bada, dagozkion izapideei emango zaie hasiera, premiamendu-bidetik berreskuratzeko.

18. artikulua.– Babesa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jasotzen dutela adierazi beharko dute esanbidez erakunde onuradunek, deialdi honen babesean diru-laguntza jasotzen duten jardunak dibulgatu, zabaldu edo, hala badagokio, argitaratzen diren jarduera guztietan.

19. artikulua.– Programaren ebaluazioa, jarraipena eta kontrola.

Enpleguarekiko konpromisoaren barnean hartutako programa honen jarraipena egingo da elkarrizketa sozialaren mahaian. Mahai horrek deialdi honen bidez diruz lagundutako ekintzen jarraipena egiteko prozedura eta arduradunak ezarriko ditu.

20. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendu automatizatua.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere fitxategi automatizatuetan sartuko ditu deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betez lortutako datu pertsonalak.

Halaber, interesdunek Legean aurreikusitako datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakete; horretarako, idazki bat bidali beharko dute hori jakinaraziz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009, Vitoria-Gasteiz).

I. ERANSKINA

URTEKO GEHIENEKO ZUZKIDURAK

Herria	Urteko zuzkidura
A titulazioa	
Alemania	22.120
Austria	23.240
Argentina	19.180
Australia	24.220
Belgika	23.660
Brasil	22.400
Kanada	21.840
Txile	19.180
Txina	23.380
Danimarka	25.200
AEB	22.260
Egipto	19.180
Finlandia	25.200
Frantzia	24.360
Grezia	18.620
Holanda	22.820
Hungaria	19.180
India	20.440
Indonesia	19.180
Irlanda	24.640
Italia	22.260
Japonia	23.940
Maroko	19.180
Mexiko	19.880
Norvegia	25.200
Polonia	19.180
Portugal	19.180
Erresuma Batua	24.640
Txekiar Errepublika	19.180
Errumania	19.180
Errusia	23.660
Hegoafrika	21.840
Suitza	25.200
Suedia	25.060
Turkia	20.440
Ukraina	19.180

Herria	Urteko zuzkidura
B titulazioa	
Alemania	18.802
Austria	19.754
Argentina	16.310
Australia	20.594
Belgika	20.118
Brasil	19.040
Kanada	18.564
Txile	16.310
Txina	19.880
Danimarka	21.420
AEB	18.928
Egipto	16.310
Finlandia	21.420
Frantzia	20.706
Grezia	15.834
Holanda	19.404
Hungaria	16.310
India	17.374
Indonesia	16.310
Irlanda	20.944
Italia	18.928
Japonia	20.356
Maroko	16.310
Mexiko	16.898
Norvegia	21.420
Polonia	16.310
Portugal	16.310
Erresuma Batua	20.944
Txekiar Errepublika	16.310
Errumania	16.310
Errusia	20.118
Hegoafrika	18.564
Suitza	21.420
Suedia	21.308
Turkia	17.374
Ukraina	16.310

Eranskinean jaso ez diren herrietarako, zuzkidura dagokion kontinenteko herrien zuzkiduren batez bestekoa da.

A titulazioa
Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa

B titulazioa
Unibertsitate diplomaduna, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa
Lanbide Heziketa arautuko goi-teknikaria, lanbide-heziketakoa
Gorago adierazitako titulazioen parekoak diren baimendutako beste titulazio ofizial batzuk
Profesionaltasun ziurtagiria

II. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

Euskal enpresek kanpoan kokatuta dituzten lantokietan gazte langabetuak praktiketan kontratatzeko diru-laguntzen deialdia

ENPRESA EDO ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK							
Erakundearen/enpresaren izena							
IFZ/IFK		Kontu korrontearen zk.					
Helbidea							
Posta-kodea		Herria					
Telefono-zenbakia(k)				Faxa			
Helbide elektronikoa			Web-orria				

LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK					
Ordezkaria	Izena		Abizenak		
Helbidea					
Posta-kodea		Herria			
Telefono-zenbakia(k)			Faxa		
Helbide elektronikoa		Web-orria			

ESKAERAREN LABURPENA		
Diru-laguntza zenbat kontratu egiteko eskatzen den		
Erakunde aditu laguntzailea programaren hedapen- eta jarraipen-lanak egiteko (hala badagokio)	☐ Bai ☐ Ez	Izena:
Eskatutako diru-laguntza, guztira		

Pertsona eskatzailearen erantzukizunpeko aitorpena / Eskaeraren data eta sinadura

..... jaunak/andreak, ... enpresaren izenean eta hura ordezkatzen dudala, gorago adierazitako laguntza ESKATZEN DUT, eta adierazten dut berariaz onartzen dudala diru-laguntza hori jasotzeko aukera arautzen duten baldintzak, euskal enpresek kanpoan kokatuta dituzten lantokietan gazte langabetuak praktiketan kontratatzeko diru-laguntzen deialdia onartzen duen Programari jarraiki, zeina 2012ko ..... ren ..... (e)ko Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabakiaren bidez onartu baitzen.

ADIERAZTEN DUT:

Lehengoa:

☐ a) Erakunde eskatzailea ez dela laguntzarik jasotzen ari beste administrazio publiko batzuetatik xede eta helburu berbererako.

☐ b) Erakunde eskatzaileari ..... euroko laguntza eman diola honek: ..... (*)

☐ c) Honi: ..... (*) laguntza eskatu eta ebatzi zain dagoela.

(*) Erakundearen/enpresaren izena adierazi.

Bigarrena:

☐ a) Enpresa edo erakunde eskatzailea ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzek eragindako itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren eraginpean.

☐ b) Enpresa edo erakunde eskatzailea ez dagoela zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, eta hartarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere ez duela, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedaturikoari jarraiki.

☐ c) Eskaera honetan jasotako datuak guztiz egiazkoak direla.

.....(e)n, 2012ko .....aren .....(e/a)n.

Lege-ordezkariaren jatorrizko sinadura eta erakundearen zigilua)

Oharra: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi honen izapidetzean bildutako datu pertsonalak, zeinen tratamendua eta argitalpena baimentzen duten deialdian parte hartzen dutenek, ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK deitutako fitxategi batean sartuko dira, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua izanik fitxategi horren titularra, eta horren helburua enpleguarekin eta prestakuntzarekin erlazionatutako diru-laguntzak kudeatu eta kontrolatzea da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren aurrean (Jose Atxotegi kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

III. ERANSKINA

ESKARIARI GAINERATU BEHARREKO NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

Euskal enpresek kanpoan kokatuta dituzten lantokietan gazte langabetuak praktiketan kontratatzeko diru-laguntzen deialdia

I.- ADMINISTRAZIOKO DOKUMENTAZIO OROKORRA

Dagokion administrazioko dokumentu hauen kopia entregatzea; proiektukoetatik behar bezala bereizi behar dira.

A) Pertsona edo erakunde eskatzailearen identifikazioa:

- ☐ Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta ordezkari izateko ahalmenaren ziurtagiria.
- ☐ IFZren kopia.
- ☐ Erakundearen eratze-eskrituraren eta estatutuen kopia.

B) Gainerako dokumentuak:

- ☐ Zerga-betebeharretan eguneratuta egotearen ziurtagiria (1).
- ☐ Gizarte Segurantzarekin eguneratuta egotearen ziurtagiria (1).
- ☐ «Hirugarrenaren alta» deitutako dokumentua, www.lanbide.net webgunean eskuragarri: eredu normalizatua.

II.- PROIEKTUARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Atal honetan eskatzen den dokumentazio guztia bildu beharko da, eta, hala badagokio, nahi bada baita dokumentazio osagarria ere.

1.- IV. eranskina: enpresa edo erakunde eskatzailearen profila deskribatzen duen memoria.
2.- V. eranskina: eskatzaileak eskatutako lanpostu bakoitzaren eskaera xehatua.
4.- Langile Batzordearen edo Enpresa Batzordearen txostena, hala badagokio. Ordezkaritza-organo horien erantzunik jaso ez bada, erakunde onuradunak horri buruz egindako ziurtagiria.
5.- Enpresa kontratatzailearen erantzukizunpeko aitorpena, adieraziz ez dela enplegurik suntsitu beste kontratazio bat egiteko.

AZALPEN OHARRAK

(1) Erakunde eskudunak emandako dokumentuak laguntza-eskabidea aurkezten den eguna baino, gehienez ere, hiru hilabete lehenago. Hala eta guztiz ere, onuradunak prozeduraren fase desberdinetan eskatzen zaizkion ziurtagiri guztiak aurkeztu beharko ditu.

Oharra: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi honen izapidetzean bildutako datu pertsonalak, zeinen tratamendua eta argitalpena baimentzen duten deialdian parte hartzen dutenek, ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK deitutako fitxategi batean sartuko dira, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua izanik fitxategi horren titularra, eta horren helburua enpleguarekin eta prestakuntzarekin erlazionatutako diru-laguntzak kudeatu eta kontrolatzea da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren aurrean (Jose Atxotegi kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

IV. ERANSKINA

ENPRESA EDO ERAKUNDE ESKATZAILEAREN PROFILA DESKRIBATZEN DUEN MEMORIA

Euskal enpresek kanpoan kokatuta dituzten lantokietan gazte langabetuak praktiketan kontratatzeko diru-laguntzen deialdia

Helburu soziala							Eratze-eguna
Bazkide kop.		Langile kopurua 2012an					
Kapital publikoaren ehunekoa	%	Espainiatik kanpo dituen lantoki-kopurua	EBren barnean		EBtik kanpo		
Enpresa edo erakunde eskatzailearen jardueren xehapena							
Egungo kapital soziala							
Enpresa alta emanda dagoen EJZren epigrafeak							
Fakturazioa							
Esportazioa							
Produktu edo zerbitzuak							
Bezero diren sektoreak							
Merkataritza-sarea							
Finkatuta dagoen herrialdeak, eta nola dagoen finkatuta (filiala, sukurtsala, ordezkaritza, eta abar)							
Hazkunde-aurreikuspenak							
Nazioartekotze-plana							
Beste batzuk							

Oharra: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi honen izapidetzean bildutako datu pertsonalak, zeinen tratamendua eta argitalpena baimentzen duten deialdian parte hartzen dutenek, ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK deitutako fitxategi batean sartuko dira, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua izanik fitxategi horren titularra, eta horren helburua enpleguarekin eta prestakuntzarekin erlazionatutako diru-laguntzak kudeatu eta kontrolatzea da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren aurrean (Jose Atxotegi kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

V. ERANSKINA

ESKATZAILEAK BEHAR DUEN LANPOSTU BAKOITZAREN ESKAERA XEHATUA

Euskal enpresek kanpoan kokatuta dituzten lantokietan gazte langabetuak praktiketan kontratatzeko diru-laguntzen deialdia

	Eskainitako lanpostuaren xehapena	Eskainitako lanpostuaren xehapena	Eskainitako lanpostuaren xehapena	Eskainitako lanpostuaren xehapena	Eskainitako lanpostuaren xehapena	Eskainitako lanpostuaren xehapena	Eskainitako lanpostuaren xehapena	Eskainitako lanpostuaren xehapena
HELMUGAKO HERRIALDEA								
Helmugako enpresa edo bulegoa								
Helmugako Area								
Lanpostuaren egitekoak								
Ordainsaria								
Eskatzen den titulazioa								
Hizkuntzak- Eskatzen den maila								
Kategoria (aplikatzeko hitzarmenaren arabera)								
Kontratua hasteko aurreikusitako data								
Kontratua amaitzeko aurreikusitako data								
Gizarte Segurantzari kotizatzeko taldea								
Sektoreko hitzarmen kolektiboa (argitalpenaren data eta aldizkaria adierazi)								

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA								
Kontratazioaren kostua								
Ostatuko eta mantenuko dieten kostua								
Erakunde aditu laguntzailearen kostua (hala badagokio)								
							ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA GUZTIRA	

Oharra: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi honen izapidetzean bildutako datu pertsonalak, zeinen tratamendua eta argitalpena baimentzen duten deialdian parte hartzen dutenek, ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK deitutako fitxategi batean sartuko dira, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua izanik fitxategi horren titularra, eta horren helburua enpleguarekin eta prestakuntzarekin erlazionatutako diru-laguntzak kudeatu eta kontrolatzea da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren aurrean (Jose Atxotegi kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).